



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2008ko maiatzaren 16a

46. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

- Foru Lege proposamena, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen 5.b) artikulua aldatzekoa. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (3. or.).
- Foru Lege proposamena, etxebizitza eskuratzeko eskubide subjektiboa aitortzeko eta Nafarroan etxebizitzari babes ofiziala emateari buruzko ekainaren 24ko 8/2004 Foru Legeari beste xedapen gehigarri bat gehitzeko. Proposamena bazter utzia (4. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernuak premiatzen da indargabe dezan Nafarroako Errege Bardearen zati baten gainean Defentsa Ministerioak eginiko deklarazioa, defentsarako lehentasunezko intereseko eremu izatearena. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da beharrezkoak diren ekintzak abian jar ditzan Nafarroako Errege Bardearen baliabideen antolamenduari buruzko planaren betetzea eskatzeko. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Defentsa Ministerioa premiatzen da azterlanak egin ditzan laborategi zibil gaitu eta independenteetan, baztertzeko Nafarroako Errege Bardeako natur parkearen barrenean dagoen tiro poligonoan uranio pobretua edo inguruan bizi diren herritarrentzat kaltegarriak diren bestelako elementuak erabiltzen direnik. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da jarduera plan orokor bat presta dezan, Baztanen dagoen Lekarozko ikastetxeko instalazioak, partzialki nahiz osorik, erabiltzen jarraitzeko. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da lan-talde bat osa dezan lehenbailehen, gehiegizko untxi kopuruaren jatorria eta egoera aztertze aldera. Socialistas del Parlamento de Navarra parla-

mentu-taldeak eta Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu dute (10. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Osasunbideko langile fakultatiboek sustatu eta bultza dezaten preskripzioak printzipio aktiboei jarraikiz egitea, sendagai generikoen erabilera handitze aldera. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (11. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren ekimenak abian jar ditzan herritarren borondatea, Bardeako tiro poligonoa desegitearen aldekoa, defendatzeko, hala adierazi baitzen Nafarroako Parlamentuaren 2008ko martxoaren 13ko erabakiaren bidez. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (12. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Foru Komunitateko hizkuntza eskoletako ikasleen eskaera aintzat har dezan eta indarrean den araudia alda dezan, urtean bi deialdi gutxienez izateko. Mozioa erretiratzea (13. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da General Solchaga anbulatorioaren izena alda dezan, lege xedapenak eta Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkuraren erabakia betetze aldera. Mozioa erretiratzea (13. or.).

F SAILA:

**Galderak:**

- Galdera, jakiteko Hezkuntza kontseilariak betearaziko duen “Hiritartasunerako hezkuntza” irakasgaiari buruz indarrean dagoen hezkuntzaren arloko araudia, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (14. or.).
- Galdera, N-121-A errepidea hobetzeko lanen exekuzioari buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (14. or.).
- Galdera, eginen ez den Pirinioetako autobia eraikitzeo aurrekontu-esleipenari emandako xedeari buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (15. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak NA-411 errepidea, Ilarregi eta Auza artean, hobetzeko duen asmoari buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (16. or.).
- Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak eta Espetxe Erakundeetako Zuzendaritza Nagusiak hitzarmenik sinatu duten edota sinatzeko asmorik duten, espetxearen ordezkio zigorrek betetzeko plazen eskaintza sustatzeko, Ana Figueras Castellano andreak egina (16. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak etxebizitza, dotazio eta industria erabilerarako lurzorua gaitzeko hartu behar dituen neurriei buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (17. or.).

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

## **Foru Lege proposamena, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen 5.b) artikulua aldatzekoa.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko maiatzaren 12an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraientza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen 5.b) artikulua aldatzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

### **ERABAKIA:**

1. Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen 5.b) artikulua aldatzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## **Foru Lege proposamena, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen 5.b) artikulua aldatzekoa**

### **ZIOEN AZALPENA**

Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1996 Foru Legeak Nafarroako hizkuntza eremuak osatzen dituzten herriak zerrendatu zituen, garai hartako legegileari egokiak iruditu zitzaizkion irizpide soziolinguistiko eta politikoen arabera.

Araudi hura onetsi eta hogeitau urte baino gehiago iragan direnean, bistakoa da Iruñerrian etengabeko hiri-bilbea osatu duten gizarte- eta hirigintza-garapenak izan direla.

Izan ere, gaur egun antzeko osagai soziologiko eta soziolinguistikoak dituen "Iruñeko konurbazio" bat dago, gaur egun indarrean dagoen 1986ko foru legeak ezarritako hizkuntza eremuen banaketa berrikustea justifikatzen duena. Adibidez, konurbazio horretan izugarri igo da haurrak ikastetxe publikoetan euskaraz eskolatzeko eskaera. Hizkuntza eremuak egokitzeari eta berrikusteari dagokionez, "Iruñeko konurbazioa" eremu mistoan sartu beharko litzateke, administrazioak gizartearen eskaerari erantzuteko.

Aldaketa horrek oztopoak kenduko lituzke, eremu horretan derrigorrezko hezkuntza euskaraz egiteko dagoen eskaerari administrazioak erantzun ahal izateko, norbera zer herritan bizi den, horren arabera diskriminazio artifical eta burokratikoak alde batera utzita.

Horretaz gain, Nafarroako Gobernuak egin berri duen ikerketa soziolinguistikoaren arabera, eremu ez-euskaldunean dauden Iruñerriko lau udalerrietako (Aranguren, Beriain, Galar, Noain-Elortzibar) biztanleen % 71,7k eremu mistoan sartu nahi du.

Bestalde, 1986. urteaz geroztik eta gizarte eta hirigintza garapeneko prozesuaren beraren ondorioz, banaketa prozesuak izan dira Iruñerriko hainbat herritan, nagusiki Antsoain, Zizur, Galar eta Oltza Zendeetan eragina izan dutenak. Horretaz gain, izen ofizialetan ere aldaketak izan dira eta komenigarria da gaur egun eremu mistoa osatzen duten herrien zerrenda gaurkotzea.

### **Artikulu bakarra.**

Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeko 5. artikuluko b) letra aldatzea. Testu hau izanen luke:

“b) Eremu mistoa, ondoko udalerriek osatua: Abartzuza, Agoitz, Antsoain, Aranguren, Artzibar, Atarrabia, Atetz, Barañain, Beriain, Berriobeiti, Berriozar, Bidankoze, Bidaurreta, Burgi, Burlata, Deierri, Eguesibar, Erronkari, Espartza, Etxarri, Etxauri, Ezkabarte, Ezkaroze, Galar, Garde, Gares, Gesalatz, Goñi, Gorza, Iruña, Itza, Itzaltzu, Izaba, Jaitz, Jaurrieta, Lezaun, Lizarra, Lizoain,

Noain-Elortzibar, Odieta, Olaibar, Ollo, Oltza, Orkoién, Orontze, Orotz-Betelu, Otsagabia, Sartzé, Txulapain, Uharte, Urzainki, Uztarroze, Zabalza, Ziritza, Zizur eta Zizur Nagusia”

**Azken xedapena.**

Foru lege honek 2009ko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra.

**Foru Lege proposamena, etxebizitza eskuratzeko eskubide subjektiboa aitortzeko eta Nafarroan etxebizitzari babes ofiziala emateari buruzko ekainaren 24ko 8/2004 Foru Legeari beste xedapen gehigarri bat gehitzeko.**

*PROPOSAMENA BAZTER UTZIA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko maiatzaren 12an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Etxebizitza eskuratzeko eskubide subjektiboa aitortzeko Foru Lege proposamena eztabaidatu eta bozkatu ondoren –horren bidez, Nafarroako babes ofizialeko etxebizitzari buruzko ekainaren 24ko 8/2004 Foru Legea aldatzen da, beste xedapen gehigarri bat gehituta–, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Batzordeak apirilaren 29an jakinarazi zion Legebiltzarreko Mahaiari Foru Lege proposamenaren testuak, onetsi ez denez gero, ez duela ez xederik ez edukirik ere.

Legebiltzarreko Lehendakariak, Eledunen Batzarrak erabaki loteslea hartu ondoren, ebazpena eman du gaur, zeinaren bidez xedatu baitu

baztertutzat joko dela kasuan kasuko legegintza-ekimena, eta hala adieraziko dela espresuki, baldin eta batzorde eskuduna arau-testu jakin bat onestearen aurka azaltzen bada. Hori horrela, ondokoa ERABAKI DA:

**1.** Baztertutzat jotzea Etxebizitza eskuratzeko eskubide subjektiboa aitortzeko Foru Lege proposamena, zeinaren bidez aldatzen baita Nafarroan etxebizitzari babes ofiziala emateari buruzko ekainaren 24ko 8/2004 Foru Legea, horri beste xedapen gehigarri bat gehituz.

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da indargabe dezan Nafarroako Errege Bardearen zati baten gainean Defentsa Ministerioak eginiko deklarazioa, defentsarako lehentasunezko intereseko eremu izatearena.**

*IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko maiatzaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita indargabe dezan Nafarroako Errege Bardearen zati baten gainean Defentsa Ministerioak eginiko deklarazioa, defentsarako lehentasunezko intereseko eremu izatearena.

2. Mozioa Nafarroako parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**MOZIOAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du:

Zioen azalpena

Nafarroako naturguneei buruzko ekainaren 17ko 9/1996 Foru Legeak lege esparru berekia definitu zuen, babesteko moduko balio bereziak dituzten Nafarroako eremuak babestu, kontserbatu eta hobetzea helburu.

Apirilaren 6ko 10/1999 Foru Legeak, berriz, natur parke deklaratu zuen Nafarroako Errege Bardea, tiro poligonoa ere Bardeako muga geografikoaren barruan sartuta.

Lehen hitzarmena 1951ko ekainaren 9an sinatu zenez geroztik urte asko igaro dira, bai eta zenbait gorabehera gertatu ere, nafar herritarrak arriskuan jarri dituztenak, tiro poligonoa biztanle-guneetatik gertu egoteagatik. Ez da onargarria abiarazi beharreko ekimen guztiak ez abiaraztea erabakigune gorenetan, tiro eremu hain arriskutsua desegite aldera. Hemendik gutxira iraugiko da Defentsa Ministerioarekin sinatutako azken hitzarmena, orain arte justifikatu dena Bardeako tiro poligonoa Defentsarako lehentasunezko intereseko eremu gisa hartzearen irizpidean oinarrituta.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du indargabe dezan Nafarroako Errege Bardearen zati baten gainean Defentsa Ministerioak eginiko deklarazioa, defentsarako lehentasunezko intereseko eremu izatearena.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 7an

Eleduna: Ion Erro Armendáriz

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da beharrezkoak diren ekintzak abian jar ditzan Nafarroako Errege Bardearen baliabideen antolamenduari buruzko planaren betetzea eskatzeko.**

*IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko maiatzaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita beharrezkoak diren ekintzak abian jar ditzan Nafarroako Errege Bardearen baliabideen antolamenduari buruzko planaren betetzea eskatzeko.

**2.** Mozioa Nafarroako parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**MOZIOAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du:

Zioen azalpena

Nafarroako naturguneei buruzko ekainaren 17ko 9/1996 Foru Legeak lege esparru berekia

definitu zuen, babesteko moduko balio bereziak dituzten Nafarroako eremuak babestu, kontserbatu eta hobetzea helburu.

Apirilaren 6ko 10/1999 Foru Legeak natur parke deklaratu zuen Nafarroako Errege Bardea.

Tiro poligonoaren aurkako batzordearen azken lan-bileran agerian geratu zenez, ordea, salaketak daude natur parkean eginiko kirol, aisia, nekazari-tza eta beste arlo batzuetako jarduerak direla eta. Lan-bileran salatu zen aldiro urratzen dela Nafarroako Errege Bardeako baliabideen antolamenduari buruzko planean ezarritakoa.

Erabaki proposamena

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du beharrezkoak diren ekintzak abian jar ditzan Nafarroako Errege Bardeako baliabideen antolamenduari buruzko planaren betetzea eskatzeko.

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu eta Bardeako Komunitatea premiatzen ditu Bardeako natur parkearen erabilera eta kudeaketari buruzko plan arautzailea presta dezan.

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu eta Bardeako Komunitatea premiatzen ditu Bardeako Natur Parkearen Kontseilu Aholku-emai-learen deialdia egin dezan.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 7an

Eleduna: Ion Erro Armendáriz

**Mozioa. Horren bidez, Defentsa Ministerioa premiatzen da azterlanak egin ditzan laborategi zibil gaitu eta independenteetan, baztertzeko Nafarroako Errege Bardeako natur parkearen barrenean dagoen tiro poligonoan uranio pobretua edo inguruan bizi diren herritarrentzat kaltegarriak diren bestelako elementuak erabiltzen direnik.**

*IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko maiatzaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Defentsa Ministerioa premiatzen baita azterlanak egin ditzan laborategi zibil gaitu eta independenteetan, baztertzeko Nafarroako Errege Bardeako natur parkearen barrenean dagoen tiro poligonoan uranio pobretua edo inguruan bizi diren herritarrentzat kaltegarriak diren bestelako elementuak erabiltzen direnik.

2. Mozioa Nafarroako parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**MOZIOAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du:

Zioen azalpena

Nafarroako naturguneei buruzko ekainaren 17ko 9/1996 Foru Legeak lege esparru berekia

definitu zuen, babesteko moduko balio bereziak dituzten Nafarroako eremuak babestu, kontserbatu eta hobetzea helburu.

Apirilaren 6ko 10/1999 Foru Legeak, berriz, natur parke deklaratu zuen Nafarroako Errege Bardea, tiro poligonoa ere Bardeako muga geografikoaren barruan sartuta.

Mozio honen bidez ez dugu eztabaidara ekarri nahi Bardeako natur parkearen barruan armada-aren tiro eremu bat egotearen egokitasuna, bai ordea tiro eremutik gertuko herrietako herritarren segurtasuna. Kazetari-informazio batek ohartarazi zuen litekeena dela Bardeako tiro poligonoan uranio pobretua erabili izana, eta Defentsa Ministerioak, hala eta guztiz ere, ez du era sinesgarrian baztertu –laborategi independente baten berariazko analisi baten bitartez– uranioa erabili izana. Hartara, ez zaie jaramonik egin eremu horretako bizilagunen kezka orokortuari eta zenbait udalek, Bardeako Batzarrak berak eta are Diputatuen Kongresuak eginiko eskaerari.

Erabaki proposamena

Nafarroako Parlamentuak Defentsa Ministerioa premiatzen du azterlanak egin ditzan laborategi zibil gaitu eta independenteetan, baztertzeko Nafarroako Errege Bardeako natur parkearen barrenean dagoen tiro poligonoan uranio pobretua edo inguruan bizi diren herritarrentzat kaltegarriak diren bestelako elementuak erabiltzen direnik.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 7an

Eleduna: Ion Erro Armendáriz

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da jarduera plan orokor bat presta dezan, Baztanen dagoen Lekarozko ikastetxeko instalazioak, partzialki nahiz osorik, erabiltzen jarraitzeko.**

### **SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko maiatzaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita jarduera plan orokor bat presta dezan, Baztanen dagoen Lekarozko ikastetxeko instalazioak, partzialki nahiz osorik, erabiltzen jarraitzeko.

**2.** Mozioa Nafarroako parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **MOZIOAREN TESTUA**

Roberto Jiménez Alli, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldearen eledunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 195. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, honako mozioa aurkeztu du, Legebiltzarraren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onets dadin; horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da jarduera plan orokor bat presta dezan, Lekarozko (Baztan) ikastetxeko instalazioak, hein batean nahiz osorik, erabiltzen jarraitzeko.

Zioen azalpena

Lekarozko ikastetxea –aita Joaquín María de Lleverasek 1888an sortua– zinezko erreferentzia izan da mende luze batez irakaskuntzaren alorrean. Bere historia oparoan, aita kaputxinoen ikastetxeak ospe handia lortu du, hango hezkuntzaren kalitateari eta diziplinari esker; Lekarozko barnetegiak Nafarroako eta Euskadiko, hala nola Espainiako beste herrialde batzuetako, burges askoren semeak hartu zituen. Maila handiko irakasleak izan zituen, eta bere ikasleak –9.000tik gora, ehun urteko historian– arteen, politikaren eta jakintzaren arlo guztietan nabarmendu ziren. Lekarozko irakasle izan ziren, besteak beste, aita

Donostia, Jorge Riezu, Germán de Pamplona, Patxi Ondarra, Calasanz de Urdax eta Eulogio Zudaire. Eta ikasle, berriz, ondokoak, ezagunenak aipatzearen: José María López de Letona, Jesús María de Leizaola, Pedro Miguel Etxenike, Jorge Oteiza eta Nicanor Zabaleta.

Azken mende laurdenean Nafarroan gertatu diren gizarte, hezkuntza eta kultur aldaketek bultzatuta, aita kaputxinoek 2003ko martxoan alde egin zuten behin betikoz ikastetxetik, zeina azkar-azkar hondatu baita, egoera negargarrian egote-raino.

Fruiturik eman ez zuten zenbait ekimen publiko nahiz pribaturen ondotik, Nafarroako Gobernuak instalazioak erosi zituen 2006an, baina, halere, abian zen hondatze prozesuak aurrera darrai, gogor eta gupidagabe.

Eraikinaren katastro-txostenak dioenez, “deskribapen historikoaren arabera, eraikina 1808koa da, baina oraingo konfigurazioa 1890-1891koa izan daiteke. Hortaz, 115 urte ditu, eta zenbait berriztapen eta egokitzapen egin bide ziren bertan, bai behintzat ikastetxe gisa erabili zen bitartean, eta kontserbazio-egoera ona izan bide zuen. 1950ean, baina, suak hartu zuen. Eraikinaren parte bat zeharo hondatu zen, eta gainerako parte ez da erabiltzen orain dela berrogei urtetik hona, eta horrek eraikinaren egoera azkarrago okertzea eragin bide du. Gaur egun, eta alde batera utzita baliorik ez duten eta erabat amortizatuta dauden eraikin erantsiak, ikastetxearen eraikin nagusia aurri egoeran dago, eta aurri ekonomikoaren kasu baten aurrean gaude, izan ere beharrezkoak diren konponketen kostuak nabarmen gainditzen baitu eraikinaren egungo balioa, lurzoru alde batera utzita.”

Eraikinak ez du ia balio artistikorik, baina halere baditu kontserbatzea merezi duten elementu solte batzuk. Eraikinak, dena den, baditu kontuan hartzeko moduko beste zenbait balio, hala nola kokapen ezin hobea –Baztanen erdi-erdian, garen ekonomikoaren ikuspuntutik une txarrak pasatzen ari den eskualdean–; hezkuntza eta kultur erreferentzia da, ikur izaterainokoa XX. mendean zehar; etnografia eta etnologia erreferentzia da, Nafarroan arlo horietan izan diren azterlanik garrantzitsuenak ikerketa zentro horretan egin baitira; eta, jakina, titulartasun publikoko gune bat da,



bereziki ibarraren eta oro har Nafarroaren beharri-  
zan eta aukera berriei irekia.

Segur aski balio horiei eta gisako beste batzuei  
esker proposatu du Nafarroako Gobernuak duela  
gutxi Nafarroa 2012 planeko laurogeita hamar  
ekintzetako bat izatea "Lekarozko erabilera anitze-  
ko zentroa" izeneko.

Historia oparo hori ikusita eta kontuan hartuta  
Nafarroako Gobernuak erakutsitako interesa, zei-  
nari esker erosi ahal izan baita eraikina, eta Baz-  
tango Udalak erakutsitakoa –ibarraren beharri-  
zen arabera izan ditzakeen erabilerak proposatu  
ditu–, eta kontuan hartuta orobat ikastetxeko ikas-  
le ohien elkarteak eginiko iradokizunak eta Lege-  
biltzarreko zenbait taldek erakutsitako interesa,  
Socialistas del Parlamento de Navarra parlamen-  
tu-taldeak ondoko erabaki proposamena aurkeztu  
du, Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkuran  
eztabaidatu eta bozkatzeko:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gober-  
nua premiatzen du hiru hilabeteko gehieneko  
epean zehatz dezan Lekarozko ikastetxeko insta-  
lazioetako beharriaren programa.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gober-  
nua premiatzen du beharriaren programa horre-  
tan gutxienez ere jaso daitezen, oinarri-oinarrizko  
elementu gisa, eraikinaren hezkuntza- nahiz kultu-  
ra-historiarekin bat datozen ondoko bi jarduketak:

Nafarroako irakasleen birziklapen eta hobekun-  
tza zentro bat, hizkuntzen alorrekoa bereziki, bere-

halako etorkizunean sektore horretan izanen diren  
beharriarenak aztertu eta konpontzen lagunduko  
duena.

Museo bat, zeinetan tokia izanen baitute, Ciga-  
ren ondareaz gain –gaur egun sakabanatuta  
dago–, Bidasoako Eskolako margolari ugariak,  
laurogeiko hamarkadatik ongi dokumentatu eta  
aztertuta baitaude.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gober-  
nua premiatzen du, harik eta eraikinari erabilera  
berria ematerik ez dagoen arte, haren segurtasu-  
na indartu dezan, liburutegian dauden liburuak  
–asko dira oraindik han daudenak– berreskura  
ditzan eta gun e hori txukun dezan, ikastetxeak  
bere historian zehar garatu duen hezkuntza eta  
kultura lan handiarekiko errespetu-adierazgarri  
gisa.

4. Instalazioen handitasuna eta dagoen espa-  
zioak ematen dituen aukerak ikusita, Nafarroako  
Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen  
du, Baztango Udalaren iradokizunak eta eskariak  
entzun ondoren, beste aukera batzuk azter ditzan,  
bai ekimen publiko hutsekoak bai ekimen pribatua-  
rekin lankidetzan abia litezkeenak, betiere bermatuz  
proposatzen diren erabilerak izaera sozialeko-  
ak izanen direla nagusiki.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 6an

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lan-talde bat osa dezan lehenbailehen, gehiegizko untxi kopuruaren jatorria eta egoera aztertze aldera.**

*SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK ETA IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DUTE*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko maiatzaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak eta Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita lan-talde bat osa dezan lehenbailehen, gehiegizko untxi kopuruaren jatorria eta egoera aztertze aldera.

**2.** Mozioa Nafarroako parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **MOZIOAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak eta Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lan-talde bat osa dezan lehenbailehen, gehiegizko untxi kopuruaren jatorria eta egoera aztertze aldera.

Zioak

Azken hilabeteetan Foru Komunitateko herrietan, eta bereziki Erriberakoetan, berriak azaldu dira aldiro untxi kopuru handia zenbait herritan sortzen ari zen arazoei buruz. Gehiegizko untxi kopuru hori arazo larria da nekazariarentzat, ikusten baitute uzta gutxitu eta hondatu egiten zaiela eta kalteak zenbatetsi behar dituztela, ondoren ehiza-barrutietako erabiltzaileei erreklamatzeko.

Arazo larria da orobat ehiztariarentzat, ikusten baitute, nahiz eta ezohiko ehiza-neurriak hartu,

gehiegizko untxi kopurua ez dela desagertzen eta kalte-ordain gero eta handiagoei egin behar dietela aurre.

Toki entitateek, berriz, zailtasunak dituzte egoera hau konponbidean jartzeko, ehiztariaren eta nekazariaren artean ikusten baitute bere burua, eta ehiza-barrutiaren titular baizik ez dira. Nafarroako Gobernuak, azkenik, dirulaguntzak areagotu behar ditu urtez urte, baina hori arazoari adabaki bat jartzea baino ez da.

Egoera horren aurrean, mozioa aurkeztu dugun taldeok Legebiltzarrean lan-bilerak egiteko eskatu genuen, ehiztariaren nahiz nekazariaren ordezkariak eta kontseilariak berak agerraldia egin zezaten. Nork bere ikuspuntutik aztertu zuen arazoa, baina ez zuten azaldu zer konponbide eman zitekeen laboreetako kalteak behin betikoz ekidite aldera.

Argi dago araudiaren aplikazioa ez dela nahiko gaur egun arazoa konpontzeko Beharrezkoa da, hortaz, konponbidean jartzea ukituta dauden herrietako nekazaritza sektorearen arazo larri hori.

Horregatik guztiagatik, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak eta Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak honako erabaki proposamen hau aurkeztu dute:

**1.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lan-talde bat osa dezan lehenbailehen, Nafarroako zenbait herritako gehiegizko untxi kopuruaren jatorria eta egoera aztertze aldera, eta herri horietan dagoen arazo hori konponbidean jar dezan.

**2.** Lan-talde horretan ordezkaturik egon behar-ko dira, nekazariak eta ehiztariak gain, ukitutako toki entitateak, Nafarroako Gobernua eta elkarte ekologistak ere, ondokoa dutela helburu: duen garrantziagatik, landa eremuetako sektore asko ukitzen dituen egiazko problema hau gainditzeko modua ematen duten konponbideak bilatzea.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 8an

Eledunak: Roberto Jiménez Alli eta Ion Erro Armendáriz

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Osasunbideko langile fakultatiboek sustatu eta bultza dezaten preskripzioak printzipio aktiboei jarraikiz egitea, sendagai generikoen erabilera handitze aldera.**

*SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko maiatzaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Osasunbideko langile fakultatiboek sustatu eta bultza dezaten preskripzioak printzipio aktiboei jarraikiz egitea, sendagai generikoen erabilera handitze aldera.

2. Mozioa Nafarroako parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**MOZIOAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Legebiltzarreko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Osasunbideko langile fakultatiboek susta eta bultza dezaten preskripzioak printzipio aktiboei jarraikiz egitea, medikamentu generikoen erabilera areagotuz hartara:

Zioen azalpena

Errezeta bidezko farmazia-gastua 151.101.588 eurokoa izan zen 2007an, alegia Osasun Departamentuaren aurrekontu osoaren % 20 inguru. Gastu hori % 5 igo da 2006koarekin alderatuta.

16/2003 Legeko 16. artikulua araber, farmazia zerbitzuak ondokoak hartzen ditu: osasun

arloko produktuak eta medikamentuak, eta gaixoen medikamentu horiek jaso ditzaten bideratutako jarduketa-multzoa, norberaren beharizan klinikoei egokituta jaso ere, dosi zehatzetan, egokia den denbora-tartean eta gaixoentzat nahiz erkidegoarentzat ahal den kosturik txikiena eraginez.

Medikamentu generikoen erabilera farmazia-gastua geldiarazi eta are murrizteko aukera ematen du. Nafarroako Gobernuak medikamentu generikoen preskripzioa bultzatu behar du; izan ere, generikoen erabilera medikamentuen gastu publikoa arrazionalizatzen laguntzen du, kalitatea eta eraginkortasuna murriztu gabe.

Horregatik guztiagatik, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak honako mozioa aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Osasunbideko langile fakultatiboek susta eta bultza dezaten preskripzioak printzipio aktiboei jarraikiz egitea, medikamentu generikoen erabilera areagotuz hartara.

2. Osasunbideko sendagileei medikamentu generikoen alorreko informazioa eta prestakuntza emateko ekintzak gara ditzan: kalitate eta biobalio-kidetasun bermeak, arau-esparrua, betekizun tekniko eta zientifikoak, eskuragarri dauden generiko motak eta abar, sendagileek produktu horiek hobeki ezagut ditzaten.

3. Medikamentu generikoen baliagarritasunari buruzko hezkuntza eta informazio kanpainak egin ditzan, herritarrei zuzenduak, Osasunbideari dakarkioten onura ekonomikoa nabarmenduz generikoek osasunerako ematen dituzten bermeez aritzean.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 8an

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren ekimenak abian jar ditzan herritarren borondatea, Bardeako tiro poligonoa desegitearen aldekoa, defendatzeko, hala adierazi baitzen Nafarroako Parlamentuaren 2008ko martxoaren 13ko erabakiaren bidez.**

*IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko maiatzaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita beharrezkoak diren ekimenak abian jar ditzan herritarren borondatea, Bardeako tiro poligonoa desegitearen aldekoa, defendatzeko, hala adierazi baitzen Nafarroako Parlamentuaren 2008ko martxoaren 13ko erabakiaren bidez.

2. Mozioa Nafarroako parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**MOZIOAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du:

Zioen azalpena

Nafarroako Parlamentuak aho batez onetsi du erabaki bat, zeinaren bidez adierazten baitu bere desioa dela Bardeako tiro poligonoa desegitea hitzarmen indarduna 2008ko abenduan bukatutakoan, eta Defentsa Ministerioa premiatzen baitu Bardeako tiro poligonoarentzat ordezkoko kokaleku bat aurki dezan, halako moduz non aipatu hitzarmena bukatutakoan poligonoa desegin ahalko den.

Nafarroako indar politikoek aho batez egin dute apustu Bardeako tiro poligonoa desegitearen alde, gerra-izaerako zama hori 57 urtez jasan ondoren eta eremu horretako herritarrentzako eragozpenak eta arriskuak etengabe jasan ondoren.

Informazio guztien arabera, Espainiako Gobernuak ez du asmorik Nafarroako herriaren borondatearen adierazle den irizpide hori, arestian aipatutako erabakian aho batez adierazitakoa, aintzat hartzeko. Areago, Defentsa Ministerioak izapidetza hasi omen ditu, Bardeako Komunitateak 2008ko abenduaz haratago luza dezan tiro poligonoa erabiltzeko hitzarmena; izan ere, ministerioak dio ez duela Bardearen ordezkoko kokalekurik tiro poligonoarako, eta Gobernu zentralak, berriz, Defentsarako lehentasunezko intereseko eremu deklaratu du leku hori.

Erabilera hori erabat kontrajartzen zaio Legebiltzar honek Bardea osoa natur parke deklaratu izanari, eta horretaz gain, nafarren borondateari xantaia egitea eta Gobernu zentralak bere ikuspuntua inposatzea dakar, eta hori bidegabea eta onartezina da.

Nafarroako Gobernuak baduenez esperientzia nafarren herritar-eskubideen aldeko nahiz Nafarroarekiko errespetua eskatzeko ekimen politiko, instituzional eta sozialak –herritarren mobilizazioa barne– sustatzen, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du beharrezkoak diren ekimenak abian jar ditzan, herritarren borondatea, Bardeako tiro poligonoa desegitearen aldekoa, defendatzeko, hala adierazi baitzen Nafarroako Parlamentuaren 2008ko martxoaren 13ko erabakiaren bidez.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 8an

Eleduna: Ion Erro Armendáriz

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Foru Komunitateko hizkuntza eskoletako ikasleen eskaera aintzat har dezan eta indarrean den araudia alda dezan, urtean bi deialdi gutxienez izateko.**

*MOZIOA ERRETIRATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko maiatzaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, Nafarroako Gobernua premiatzen zuena Foru Komunitateko hizkuntza eskoletako ikasleen eskaera aintzat har zezan eta indarrean

den araudia alda zezan, urtean bi deialdi gutxienez izateko, erretiratu izanaren berri izan duela adieraztea. Mozio hori 2008ko martxoaren 7ko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

---

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da General Solchaga anbulatorioaren izena alda dezan, lege xedapenak eta Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkuraren erabakia betetze aldera.**

*MOZIOA ERRETIRATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko maiatzaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, Nafarroako Gobernua premiatzen zuena General Solchaga anbulatorioaren izena alda zezan, lege xedapenak eta Nafarroako Parla-

mentuaren Osoko Bilkuraren erabakia betetze aldera, erretiratu izanaren berri izan duela adieraztea. Mozio hori 2008ko maiatzaren 6ko 41. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, jakiteko Hezkuntza kontseilariak betearaziko duen “Hiritartasunerako hezkuntza” irakasgaiari buruz indarrean dagoen hezkuntzaren arloko araudia.**

*PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko maiatzaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko Hezkuntza kontseilariak betearaziko duen “Hiritartasunerako hezkuntza” irakasgaiari buruz indarrean dagoen hezkuntzaren arloko araudia.

**2.** Galdera Nafarroako parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Galdera Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurak, Legebiltzarreko erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Herritartasunerako hezkuntza izeneko ikasgaia

Guraso ultrakatolikoek zenbait elkartek behin eta berriz antolatu dituzten mobilizazio-kanpainak gorabehera, Hezkuntza kontseilariak Nafarroako ikastetxe guztietan betearaziko al du hezkuntza arloko araudi indarduna?

Iruñean, 2008ko maiatzaren 8an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

**Galdera, N-121-A errepidea hobetzeko lanen exekuzioari buruzkoa.**

*AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko maiatzaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, N-121-A errepidea hobetzeko lanen exekuzioari buruzkoa.

**2.** Galdera Nafarroako parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Galdera Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejerok, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Parlamentu-talde honek behin eta berriz kezka adierazi du N-121-A errepidea hobetzeko lanen exekuzioa dela eta. Hori horrela, zenbait galdera aurkeztu izan ditugu, zeinek helburu baitzuten, batetik, jakitea lanak zenbateraino zeuden aurrerata, eta planifikatutakora doitzen ote ziren, eta, bestetik, obra horren exekuzioa eragiten ari den eragozpen ugariak direla-eta, Gobernuari arreta jarraztea gai honetan. Azken asteotan, obraren jarduerak behera egin duela ikusi da; bereziki agerikoa da Igantzi eta Etxalar artean. Horregatik, foru parlamentari honek Igantzi-Etxalar zatiari buruzko galdera hauek egin nahi ditu:

1.- Lanak, 2008ko apirilaren 30ean, exekuziorako plangintzan aurreikusitakoari doitzen al zaio

2.- 2008ko apirilaren 30ean, ba al da alderik exekutatu den obraren eta plangintzan exekutatuta egonen zela aurreikusten zenaren artean?

3.- Lanen exekuzioa ez bada planifikatutakora doitzen, berriro planifikatu behar al dira obraren exekuzioa eta amaiera? Lanen exekuzioaren aurrekontua aldatu behar al da?

4.- Lanen exekuzioa ez baldin bada 2008ko apirilaren 30ean doitzen obraren plangintzan ezarritako epeetara, horretarako arrazoiak azal ditza-kezu?

Iruñean, 2008ko apirilaren 30ean

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

---

## **Galdera, eginen ez den Pirinioetako autobia eraikitzeke aurrekontu-esleipenari emandako xedeari buruzkoa.**

**AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko maiatzaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, eginen ez den Pirinioetako autobia eraikitzeke aurrekontu-esleipenari emandako xedeari buruzkoa.

2. Galdera Nafarroako parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Galdera Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejerok, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

2002-2009 urteetarako Nafarroako errepideei buruzko II. plan zuzendariaren barruan, jasota dago 28,85 milioi euroko aurrekontu-esleipena eginen dela Pirinioetako autobia eraikitzeke, Iparraldeko mugaraino helduko dena.

Kontuan izanik aipaturiko ekintza hori ez dela eginen plan horren indarraldian, parlamentari honek honakoa jakin nahi du:

– Zein da aurrekontu-esleipenari emanen zaion xedea? Beste xede batzuetarako erabiliko balitz, xedeak zehaztea nahi dugu.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 7an.

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

## **Galdera, Nafarroako Gobernuak NA-411 errepedea, Ilarregi eta Auza artean, hobetzeko duen asmoari buruzkoa.**

*AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko maiatzaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak NA-411 errepedea, Ilarregi eta Auza artean, hobetzeko duen asmoari buruzkoa.

**2.** Galdera Nafarroako parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Galdera Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

2002-2009 urteetarako Nafarroako errepedeei buruzko II. plan zuzendariaren barruan, Nafarroako Gobernuak ez du aintzat hartu NA-411 errepedea hobetzea, Ilarregi eta Auza artean.

Errepide horren egoera txarra kontuan izanik, parlamentari honek honakoa jakin nahi du:

– Errepide horretan zer hobekuntza egiteko asmoa du Nafarroako Gobernuak?

Iruñean, 2008ko maiatzaren 7an.

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

## **Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak eta Espetxe Erakundeetako Zuzendaritza Nagusiak hitzarmenik sinatu duten edota sinatzeko asmorik duten, espetxearen ordezkio zigorak betetzeko plazen eskaintza sustatzeko.**

*ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko maiatzaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak eta Espetxe Erakundeetako Zuzendaritza Nagusiak hitzarmenik sinatu duten edota sinatzeko asmorik duten, espetxearen ordezkio zigorak betetzeko plazen eskaintza sustatzeko.

**2.** Galdera Nafarroako parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Galdera Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda



**GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko Ana Figueras Castellano andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzuteko:

Zioen azalpena

Zigor kodearen erreformak oso gogor zigortzen ditu bide segurtasunarekin lotutako arau-hauste larrienak, baina ez du bilatzen arau-hausle guztiak espetxean sartzea; halatan, erreforma horrek ezartzen du ezen bi urtetik beherako zigorrak dituzten pertsonak, zigor-aurrekaririk ez badute, espetxe-zigorraren ordezkia ondokoa izan dezatela: erkidegoaren onurarako lanak egin beharra, isuna ordaindu behar izatea eta gidabaimena kentzea.

Espetxearen ordezkio zigorrak dira Bartolomé Vargasek zuzentzen duen Bide Segurtasunaren Fiskaltzaren apustu handia. Zoritxarrez, erkidegoaren onurarako lanen eskaintzak ez ditu beteko eskariaren beharrik.

Espetxe Erakundeetako Zuzendaritza Nagusia administrazio publikoekin eta entitate pribatuekin

hitzarmenak sinatzeko ahaleginetan ari bada ere, zenbait epaile eta fiskalek alarma-oihua bota dute, gisa horretako lanen eskaintza ezaren erruz ezinezkoa delako zigorrak betetzea erkidegoaren onurarako lanak eginez.

Horrenbestez, hauxe jakin nahi dugu:

- Nafarroako Gobernuak eta Espetxe Erakundeetako Zuzendaritza Nagusiak sinatu al dute hitzarmenik edo ba al dute hitzarmenik sinatzeko asmorik, espetxearen ordezkio zigorrak betetzeko plazen eskaintza sustatzeko?

- Nafarroako Gobernuak eginahaletan ari al da, espetxe-zigorraren ordezkio erkidegoaren onurarako lanak eskaini ahal izateko?

- Erkidegoaren onurarako lanak egiteko zenbat plaza eskaintzen ditu une honetan Nafarroako Foru Komunitateak?

- Eskaintzarik baldin badago, zer lan dira horiek? Zenbat plaza eskaintzen da lan bakoitzeko?

Iruñean, 2008ko maiatzaren 7an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

## **Galdera, Nafarroako Gobernuak etxebizitza, dotazio eta industria erabilerarako lurzorua gaitzeko hartu behar dituen neurriei buruzkoa.**

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko maiatzaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak etxebizitza, dotazio eta industria erabilerarako lurzorua gaitzeko hartu behar dituen neurriei buruzkoa.

2. Galdera Nafarroako parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Galdera Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduen babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Galdera

Gure erkidegoko zenbait eskualde garrantzitsutan, ekonomikoki eta sozialki garatzeko dituzten aukerak hein handi batean toki erakundeen mende daude, bai eta lurzorua etxebizitza, dotazio eta industria erabilerarako gaitzeko ahalmena ere.

Kasu askotan, arazo nagusia da aipaturiko erabilera horietarako egokiak diren lurzoruak kalifikatuta daudela uholde-eremu gisa, eta araudia modu orokorrean aplikatzen dela, bere aplikazioari eta arretari dagokionez diskriminazio positiborik

egin gabe arreta berezia behar duten eskualdeekin, esaterako, Nafarroako iparraldearekin, non garapen ekonomikoa eta soziala lurzoru horiek gaitzeko aukeren mende dagoen, neurri oso handian.

Hori guztia dela-eta, parlamentari honek honakoa jakin nahi du:

– Lurzorua aurretik aipaturiko erabilera horietarako gaitzeko, zer neurri hartzeko asmoa du Nafarroako Gobernuak?

Iruñean, 2008ko maiatzaren 8an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

---



NAFARROAKO PARLAMENTUKO  
ALDIZKARI OFIZIALA

## HARPIDETZA ORRIA

*Izen-deiturak* .....

*Helbidea* .....

*Telefonoa* ..... *Hiria* .....

*P. K.* ..... *Probintzia* .....

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu.

<b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b> <b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b>	<b>IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b> <b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b> «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete ..... 47,00 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko ..... 1,25 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko ..... 1,40 »	